



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko maiatzaren 12a

49. ZK.

### A U R K I B I D E A

F SAILA:

**Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da kontuan izan ditzan zenbait irizpide farmazia-eskaerak ebazterakoan”. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da meningitisari buruzko informazio kanpainak egin ditzan”. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da tutorearen figura arautu dezan MIR sistemaren barrenean prestatzen ari diren espezialistentzako”. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da minbizia duten haurren laguntza arloan neurriak har ditzan”. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har dezan osasun laguntza izateko eskubidea ezagutzeko eskumena”. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Antsoaingo udalerria hartuko duen oinarritzko osasun eskualde berri bat era dezan”. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da zerbitzu onkologikoak eman ditzan Tuterako eta Lizarrako ospitaleetan”. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako osasun arloko teknologien ebaluaziorako agentzia sor dezan”. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Parlamentuak babestu, sustatu eta bultzatzen du hurrek amaren esnea hartzea”. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdietako zerbitzuak bateratzeko aukera azter dezan”. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Drogamenpekotasunei buruzko Foru Komunitateko Plana droga kontsumoan gertatutako aldaketara molda dezan”. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
  - Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du laguntza bidezko ugalketa teknikak Nafarroako sare publikoaren osasun prestazioen artean sartzeko behar diren neurriak har ditzan”. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
  - Galdera, osasun etxeetan koito ondoko zein pilula banatzen den itauntzen duena. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
  - Galdera, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateetako programei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
  - Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritzari buruzko foru lege bat egin dezan, jatorriko deiturak indartu ditzan bai eta segurtasun kontrolak areagotu ere nekazaritzako. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
  - Galdera, ardoaren museoaren eraikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
  - Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ardoa sustatu eta merkaturatzeko kanpaina bat egin dezan”. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
  - Galdera, gazteen elkarten jardueri ematen zaizkien dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
  - Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enpresa pribatuekin hitzarmen bakarra sina dezan ezgaituen zentro publiko hitzartuetarako”. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
  - Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitateko etorkinei buruzko politika koordinatzeko batzorde bat sor dezan”. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
  - Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua eta Estatu espainiarreko Gobernua premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten garapenaren aldeko lankidetzari dagokionez”. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
  - Galdera, SOS Nafarroako sendagileen lanpostuen bitarteko izaera konpontzeko Nafarroako Gobernua premiatzen duen erabakiaren aplikazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
  - Galdera, asteburuetan emakumeentzako larrialdietako laguntza bermaturik ote dagoen itauntzen duena. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
  - Galdera, koitoaren ondoko pilula zein baldintzatan banatzen den itauntzen duena. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
  - Galdera, Foru Komunitateko Onkologia planeko erradioterapiako ekipoei eta obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
  - Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea bete dezan”. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
  - Galdera, Alimentos Congelados (ACSA) enpresari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
  - Galdera, Fundación para la Investigación Médica Aplicada erakundearekin sinaturiko lankidetzaren protokoloari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
  - Galdera, zenbait herritako D ereduko ikasleentzat antolatutako eskola-garraiorako laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
  - Galdera, Nafarroako Gobernuaren kontseilariak eta zuzendari nagusiek gobernuaren partaidetza duten sozietateetan parte hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
  - Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da “Mikel Larumbe” osasun ikerketarako bekak berraztertu eta, gehienez ere hiru hileko epean, erabaki dezan beka hori nori eman”. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
  - Galdera, Tuter eta Lizarrako ospitaleetan unitate onkologikoak abiarazteko proiektua existitzen ote den itauntzen duena. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
  - Galdera, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak Nafarroako merkataritza arautu zuen Foru Legea garatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
  - Galdera, Osasun Departamentuaren aurrekontu-betetzearen egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- I SAILA:**
- Parlamentuko Jarduera:**
- 2003ko martxoan egindako bilerak (38. or.).
  - 2003ko martxoan Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (44. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da kontuan izan ditzan zenbait irizpide farmazia-eskaerak ebazterakoan”****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da kontuan izan ditzan zenbait irizpide farmazia-eskaerak ebazterakoan”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko uztailaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak, 2002ko uztailaren 2an, galdera egin

du Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia, Osasun Batzordeak 2001eko ekainaren 13an hartutakoa, bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da kontuan izan ditzan zenbait irizpide farmazia-eskaerak ebazterakoan”. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Farmaziak baimentzeko espedienteak Nafarroako Farmazia Laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legean ezarri bezala eta Farmazia laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legea farmazia bulegoen arloan garatzeko arauak ematen dituen 197/2001 Foru Dekretuaren aurreikuspenen arabera ebazten ari dira.

Bi arauetako aurreikuspenek Parlamentuko erabaki horren asmoari eta hitzei erantzuten diete.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko uztailaren 12an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

**Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da meningitisari buruzko informazio kanpainak egin ditzan”****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da meningitisari buruzko informazio kanpainak egin ditzan”»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko uztailaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak, 2002ko uztailaren 2an, galdera egin du Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia, Osasun Batzordeak 2001eko irailaren 26an hartutakoa, bete al den jakiteko: "Nafarroako Gobernua premiatzen da meningitisari buruzko informazio kanpainak egin ditzan". Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasun Departamentuak, 2001. urtean, meningitisaren inguruko jarduera informatiboak bete ditu.

Horretarako, Osasun Publikoaren Institututik eta txertaketa kanpainaren hasierarekin batera, "Meningitisari buruz jakin beharrekoa" izeneko triptiko bat banatu zen, euskaraz eta gaztelaniaz.

Horri gehitu behar zaizkio hurrekin eginiko txertaketa kanpainak eta Oinarrizko Osasun Laguntzako talde bakoitzak gauzaturiko osasun hezkuntzako jarduerak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko uztailaren 11n

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: "Nafarroako Gobernua premiatzen da tutorearen figura arautu dezan MIR sistemaren barrenean prestatzen ari diren espezialistentzako"**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: "Nafarroako Gobernua premiatzen da tutorearen figura arautu dezan MIR sistemaren barrenean prestatzen ari diren espezialistentzako".»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko uztailaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak, 2002ko uztailaren 2an, galdera egin du Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko

erabakia, Osasun Batzordeak 2001eko irailaren 26an hartutakoa, bete al den jakiteko: "Nafarroako Gobernua premiatzen da tutorearen figura arautu dezan MIR sistemaren barrenean prestatzen ari diren espezialistentzako". Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Gaur egun baditugu BAME bidez prestatzen ari diren espezialistentzako tutore egokiak.

Barne mediku egoiliarren prestakuntza onarturik eta kreditaturik duten Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentro eta zerbitzu guztietan izaten da prestakuntza horretaz arduratzen den tutore bat; beharkizun hori, gainera, Osasun eta Kontsumo Ministerioak berak aurreikusia da barne mediku egoiliarrak prestatzeko zerbitzuak kreditatzeko prozesuan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko uztailaren 12an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da minbizia duten haurrendako laguntzaren arloan neurriak har ditzan”**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da minbizia duten haurrendako laguntzaren arloan neurriak har ditzan”»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko uztailaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak, 2002ko uztailaren 2an, galdera egin du Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko

erabakia, Osoko Bilkurak 2002ko martxoaren 7an hartutakoa, bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da minbizia duten haurrendako laguntzaren arloan neurriak har ditzan”. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Plan Onkologikoan aurreikusirik daude minbizia duten haurrei laguntza integrala emateko neurriak. Plan hori Nafarroako Gobernuak onetsi zuen 2001eko ekainean eta egun betetzen ari da, aurreikuspenen arabera.

Gaur egun minbizia duten haurrendako laguntza bermaturik dago irizpide tekniko eta kalitatezkoen arabera.

Horrekin. Parlamentuko erabaki horrek dioena betetzen da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko uztailaren 12an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har dezan osasun laguntza izateko eskubidea ezagutzeko eskumena”**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har dezan osasun laguntza izateko eskubidea ezagutzeko eskumena”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko uztailaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak, 2002ko uztailaren 2an, galdera egin du Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia, Foru Araubide Batzordeak 2002ko martxoaren 12an hartutakoa, bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har dezan osasun laguntza izateko eskubidea ezagutzeko eskumena”. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasun Departamentua lanean ari da, talde tekniko baten bitartez, txosten bat prestatzen, gure erkidegoan Nafarroako Gobernuaren eskutik

osasun laguntza izateko eskubidearen ezagutza gauzatzeko, ulertuta herritar orok duela eskubide hori herritar den aldetik eta ez Gizarte Segurantzaren araubideren batean kotizatzeagatik.

Azterlan horrek heldu nahi dio, halaber, aseguru publikoaren zenbait araubideren egoerari osasun laguntza emateari dagokionez, bateragarria izan dadin osasunerako eskubidea, beraz, osasun laguntzarako eskubidea herritar izatetik heldu dela

dioen irizpidearekin, edozein dela ere aseguru araubidea.

Horrekin Parlamentuko erabaki hori betetzen da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko uztailaren 12an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

---

## **Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Antsoaingo udalerrria hartuko duen oinarrizko osasun eskualde berri bat era dezan”**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Antsoaingo udalerrria hartuko duen oinarrizko osasun eskualde berri bat era dezan”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko uztailaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristó-

bal jaunak, 2002ko uztailaren 2an, galdera egin du Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia, Osoko Bilkurak 2002ko maiatzaren 23an hartutakoa, bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Antsoaingo udalerrria hartuko duen oinarrizko osasun eskualde berri bat era dezan”. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak 2002ko maiatzaren 27an onetsi zuen Antsoaingo eskualde oinarrizkoa, Antsoaingo udalerrria Arrotxapea-Antsoaingo eskualde oinarrizkotik ateratzea ekarriko duena.

Horrekin Parlamentuko erabaki hori betetzen da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko uztailaren 12an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da zerbitzu onkologikoak eman ditzan Tuterako eta Lizarrako ospitaleetan”**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da zerbitzu onkologikoak eman ditzan Tuterako eta Lizarrako ospitaleetan”»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko uztailaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak, 2002ko uztailaren 2an, galdera egin du Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko

erabakia, Osoko Bilkurak 2002ko maiatzaren 30ean hartutakoa, bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da zerbitzu onkologikoak eman ditzan Tuterako eta Lizarrako ospitaleetan”. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak 2001eko ekainean onetsitako Nafarroako Plan Onkologikoan aurreikusirik dago unitate onkologikoak sortzea Tuterako eta Lizarrako ospitaleetan.

Gaur egun horien diseinu teknikoa prestatzen ari da, eta uste dugu Tuterako unitatea irailean jarriko dela abian eta ondoren, Lizarrako Ospitaleko unitatea, 2002ko ekitaldiaren barrenean, Plan Onkologikoak ezarri bezala.

Horrekin Parlamentuko erabaki hori betetzen da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko uztailaren 12an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako osasun arloko teknologien ebaluaziorako agentzia sor dezan”**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako osasun arloko teknologien ebaluaziorako agentzia sor dezan”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko uztailaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak, 2002ko uztailaren 2an, galdera egin du Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia, Osoko Bilkurak 2002ko maiatzaren 30ean hartutakoa, bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako osasun arloko teknologien ebaluaziorako agentzia sor dezan”. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak ez du aurreikusirik Nafarroako osasun arloko teknologien ebaluaziorako agentziarik sortzea.

Foru Komunitatearen tamaina, populazioan eta osasun zerbitzuen kopuruetan, ez da behar adina-koa mota horretako agentzia bat sortzea justifikatzeko, ez teknikoki ez eta ekonomikoki ere.

Zerbitzu horren erabilera txikiegia izanen litzateke eta beraz ez luke bideragarritasunik kalitate maila gutxienekoa bermatzeko; bestalde, zentzugabekeria litzateke herritarrek zergen bidez administrazioaren esku uzten dituzten baliabide ekonomikoen erabilera efizientearen ikuspuntutik.

Gaur egun, Nafarroaren beharrei Osasun arloko Teknologien Ebaluaziorako Agentzia Nazionalak ematen dituen zerbitzuez erantzuten zaie.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko uztailaren 12an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

---

## **Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Parlamentuak babestu, sustatu eta bultzatzen du haurrek amaren esnea hartzea”**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Parlamentuak babestu, sustatu eta bultzatzen du haurrek amaren esnea hartzea”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko uztailaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak, 2002ko uztailaren 2an, galdera egin

du Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia, Osoko Bilkurak 2002ko ekainaren 6an hartutakoa, bete al den jakiteko: “Nafarroako Parlamentuak babestu, sustatu eta bultzatzen du haurrek amaren esnea hartzea”. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasun Departamentua ados dago haurrek amaren esnea hartzea bultzatzearekin eta elkarteek nola profesionalak ildo horretan egiten dituzten ekintzei sostengua ematen die.

Era berean, Lizarra eta Tuterako ospitaleek, bai eta Bideko Ama Birjina Ospitaleak ere zenbait jarduerak egiten dituzte “ospitaleak haurren lagun” estrategiaren barrenean, besteak beste haurrek amaren esnea hartzea sustatzen baitu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko uztailaren 12an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto



## **Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdietako zerbitzuak bateratzeko aukera azter dezan”**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdietako zerbitzuak bateratzeko aukera azter dezan”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko uztailaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristó-

bal jaunak, 2002ko uztailaren 2an, galdera egin du Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia, Osoko Bilkurak 2002ko maiatzaren 30ean hartutakoa, bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdietako zerbitzuak bateratzeko aukera azter dezan”. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasun Departamentua lanean ari da Nafarroako osasun arloko larrialdien planaren berrikuspenean eta etorkizuneko garapenean.

Berrikuspen horretan aztertzen ari da aipatutako erabaki parlamentarioan proposaturiko neurriaren egokitasuna eta bideragarritasuna.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko uztailaren 12an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Drogamenpekotasunei buruzko Foru Komunitateko Plana droga kontsumoan gertatutako aldaketetara molda dezan”**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Drogamenpekotasunei buruzko Foru Komunitateko Plana droga kontsumoan gertatutako aldaketetara molda dezan”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna,

Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko uztailaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak, 2002ko uztailaren 2an, galdera egin du Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia, Erkidegoaren egoerari buruzko eztabaidan onetsitakoa, bete al den jakiteko: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Drogamenpekotasunei buruzko Foru Komunitateko Plana droga kontsumoan gertatutako aldaketetara molda dezan". Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Drogamenpekotasunei buruzko Foru Komunitateko planean eta kasuan kasuko programetan

sartu dira dagoeneko drogen kontsumoaren eredu berrien inguruko helburuak eta ekintzak.

Egokitzapen horiek Drogamenpekotasunei buruzko Foru Komunitateko planaren Zuzendaritza Teknikoak kopuruez eta kalitateaz sustatzen dituen azterlanetan ageri diren ondorioetatik abiatu egin dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko uztailaren 12an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

---

**Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: "Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du laguntza bidezko ugalketa teknikak Nafarroako sare publikoaren osasun prestazioen artean sartzeko behar diren neurriak har ditzan"**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: "Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du laguntza bidezko ugalketa teknikak Nafarroako sare publikoaren osasun prestazioen artean sartzeko behar diren neurriak har ditzan".»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko uztailaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak, 2002ko uztailaren 2an, galdera egin

du Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: "Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du laguntza bidezko ugalketa teknikak Nafarroako sare publikoaren osasun prestazioen artean sartzeko behar diren neurriak har ditzan". Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Laguntza bidezko ugalketa Nafarroako osasun sistema publikoko prestazio gisa eskaintzen da gaur egun, baina hura betetzeko sistema publikoaren baliabide osagarrietara jo behar izaten da, oraingoz.

Halere, Bideko Ama Birjina Ospitaleak esku artean du mota horretako unitate bat sortzeko proiektua, Nafarroan dauden premiak behar beste eta erabateko bermeaz ase ditzan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko uztailaren 12an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Galdera, osasun etxeetan koito ondoko zein pilula banatzen den itauntzen duena**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak osasun etxeetan koito ondoko zein pilula banatzen den itauntzen duen galdera egin zuen. Galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko ekainaren 24ko 69. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Parlamentuko Askotariko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak, 2002ko ekainaren 12an, galdera egin du koito

ondoko pilulari buruz eta jakiteko halaber zein osasun etxetan banatzen den beste bat eta bana-keta bermatzeko, asteburuko txanda bakoitzean eragozle ez diren langilerik ba ote dagoen. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Koitoaren ondoko pilula Osasunbidea-Nafarroako Osasun zerbitzuko ospitaleetako larrialdi zerbitzuetan dago emateko moduan, egun osoan eta egun guztietan.

Abian jarri zenetik profesional batek ere ez du, guk dakigula, kontzientzia eragozpenik planteatu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko uztailaren 19an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Galdera, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateetako programei buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateetako programei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko ekainaren 24ko 69. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak galdera egin du Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateetako programei buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoiei jarraikiz.

1. Zein programa gauzatzen dira Nafarroan gizarte zerbitzuen mankomunitateetan?

Udal/Mankomunitate bakoitzean 1998az geroztik egin diren programak eta haien finantzazioa agiri honi itsatsirik dagoen 1. eranskinean ageri direnak dira.

2. Zenbat pertsonak hartu du laguntza mankomunitate horietako bakoitzean 1998-2001 epean (urtez urte)?

Ezinezkoa da datu hori kalkulatzeko, 2002. urtera arte oinarrizko gizarte zerbitzuak ez direlako erabat informatizaturik eta SIUSS izeneko programa informatikoa (gizarte zerbitzuen erabiltzaileen informazio sistema) ez zegoelako instalaturik. Halere, 2000. urtean lortutako datuak, partzialak izanik ere, agiri honekin batera dagoen 2. eranskinean ageri direnak dira.

3. Zein izan da programa bakoitzaren kostua urtez urtekoa eta mankomunitatez mankomunitatekoa?

Programa bakoitzaren kostuari dagokionez, 1. eranskinean dago jasorik mankomunitate edo udal bakoitzari emaniko dirulaguntza (Nafarroako Gizarte Ongizateari ekarritako kostua), 11/1987 Foru Dekretuan ezarritako finantzaketa baldintzekin eta oinarritzko gizarte zerbitzuek programa berariazkoak gauzatzeko urteko deialdiekin bat.

Mankomunitate edo udalek ordaindu beharreko kostua horiek beraiek Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari emaniko informazioetatik atera behar da, eta orain ezinezkoa da datu fidagarririk ematea lan egoera oso desberdinak daudelako (lansariak, maila profesionalak, osagarriak, antzinakotasuna, etab.) eta toki entitateek jasaten duten kostuan eragina duten beste elementu batzuei buruzko informazioaren irregularutasunagatik.

4. Zer finantzazio eman dio Nafarroako Gobernuak programa bakoitzari urte bakoitzean eta mankomunitate bakoitzean?

Udal/Gizarte zerbitzuen mankomunitate bakoitzean 1998az geroztik egin diren programak eta haien finantzazioa agiri honi itsatsirik dagoen 1. eranskinean ageri direnak dira.

5. Zein izan da mankomunitateak osatzen dituzten udalen kontribuzioa, udalez udal, urte bakoitzean eta programa bakoitzeko?

Urte eta programa bakoitzean, udal edo mankomunitateen parte-hartzea hauxe da, 11/1987 Foru Dekretuan, programa berariazkoak gauzatzeko dirulaguntzen urteko deialdian eta 98/1989 Foru Dekretuan arautu bezala.

– % 50 programa orokorrean

– % 40 programa berariazkoetan

– 5,71 euro biztanle bakoitzeko jarduketa bereziko eremuetan (5.000 biztanletik behera)

Mankomunitate bakoitzeko kide diren udalen parte-hartzea kasuan kasuko estatutuetan arautzen da eta ez da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren eskumena datu hori kontrolatzea.

6. Dirusarreraren bilakaera programa bakoitzeko eta urte bakoitzeko.

Dirusarrerak udal edo mankomunitate bakoitzaren eskumen osoa dira, bakoitzaren udal tasen eta horietaz egiten duen kudeaketaren arabera.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 1ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:  
Calixto Ayesa Dianda

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

## **Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritzari buruzko foru lege bat egin dezan, jatorriko deiturak indartu ditzan bai eta segurtasun kontrolak areagotu ere nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuetan”**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritzari buruzko foru lege bat egin dezan, jatorriko deiturak indartu ditzan bai eta segurtasun kontrolak areagotu ere nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuetan”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Cristóbal García jaunak galdera egin du Parlamentuak onetsitako erabaki bat, Nafarroako Gobernuak nekazaritzari buruzko foru lege bat egitera premia-zen zuena, betetzeari buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko ekainaren 29an, hitzez hitz haxe dioen erabakia onetsi zuen:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-zen du bederatzi hilabeteko epean nekazaritza arloko lege eta arauen bilduma bat egin dezan. Lege bilduma horrek sektorea berriztatzeari, produkzioaren kalitatea kantitatearen ordez lehenesteari, jatorriko deiturak indartzeari eta nekazaritza- nahiz abeltzaintza-produktu guztietan segurtasun kontrolak gehitzeari ekin behar-ko dio.

Araudi berriak lehenetsi eginen ditu berriki izandako epidemiak bezalako arriskuei aurrea hartzeari dagozkion gaiak, eta bultzada emanen die teknologiaren, produkzioaren (ureztalurrak handituz) eta ustiategien (bertan gazteek lan egin ahal izateko laguntzak emanez) berritzeari eta natura babestuz landa-ingurunea garatzeari.

Nekazaritza-politika berriaren arrakasta sei eragileren baitan dago (kontsumitzaileak, nekazariak, pentsu-fabrikatzaileak, elikagai-industria, txikizkako merkataritza eta borondate politikoa), eta, horretarako, erantzukizun-banaketa berri bat egitea eta horietako bakoitzak produkzio-prozesu horretan daukan zeregina zehaztea beharrezkoa izanen da.”

Erabaki horri erantzuteko, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Departamentuak nekazaritzaren arloko foru legeriaren bilduma egin zuen, [www.cfnavarra.es/agrodigital/legisla/index.htm](http://www.cfnavarra.es/agrodigital/legisla/index.htm) web orrian ezartzeko -2002ko urtarrilaren 20an-.

Bestalde, 2002ko martxoaren 12ko Foru Aginduaren bidez, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Argitalpen Atalaren kargu utzi zen “Legislación Foral Agraria de Navarra” izeneko liburuaren fotokonposizioko lanak egiteko espedientearen tramitazioa. Egun, liburuak presta-zen ari da.

Bildumak 9 atal ditu: eskumenak; nekazaritzaren arloko foru administrazioaren antolamendua; prozedura orokorrak eta erregistro administrazioak; nekazaritza; nekazaritzako elikagaien industriak eta elikadura; nekazaritzako azpiegiturak; nekazaritzako finantzazioa eta landa garapenerako laguntzak eta herrilurrak eta mendiak.

Bilduma horretan jasorik daude Europako Batasunak osasun eta kalitatearen arloan eta ingurumenaren errespeturako eskatzen dituen betekizunak, Batzordeak 2000-9-14an hartutako Erabakiaren bidez onetsi zen Nafarroako landa garapenerako programan eta Estatuak Nafarroari eman beharreko laguntzetan ere -Batzordeak 2002-4-5 4an onetsiak- ageri direnak.

Bilduma hori azterturik ateratzen den ondorioa da arauen artean aurreikusirik daudela Parlamentuak 2001eko ekainaren 29an onetsitako erabakian azaldutako gaiak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 5ean

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria Ignacio Javier Martínez Alfaro

## Galdera, ardoaren museoaren eraikuntzari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak ardoaren museoaren eraikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko ekainaren 19ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du ardoaren museoaren eraikuntzari buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi kontseilariaren erantzuna:

Gaiei galdetu diren ordena berean erantzunen diet.

Ardoaren Museoa eraikitzeko prozesuari Ekonomia eta Ogasun kontseilariak 1996ko abuztuaren 30ean emaniko Foru Aginduaren bidez eman zitzaion hasiera. Foru agindu horren bidez ezarri zen "Erriberriko Mahastien eta Ardoaren Erakusketa Zentroa" zaharberritzeko aurreproiektuaren sari-ematea lehiaketa murriztuaren bidez adjudikatzeko prozedura.

1999ko urriaren 1ean Ondare Zerbitzuko Zuzendaritzak jakinarazi zion Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza Nagusiari obraren amaiera. Kostua, guztira, 1.012.900 eurokoa izan zen.

Laneko Segurtasun eta Higienearen Zuzendaritzak eskatutako aldaketa batzuk egin ondotik, eta hezetasunarekin zeuden arazo batzuk konponduta -8.394 euroko gastua ekarri zuten eta 2001. urtean egin ziren-, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi kontseilariak 2001eko irailaren 11n emaniko Foru Aginduaren bidez Instituto para la Calidad Agroalimentaria, S.A. ren esku utzi zen "Mahastiaren eta Ardoaren Erakusketa Zentroaren edukia" betetzea, 727.224,64 euro inguruko kostuarekin.

Lehiaketa publikoaren eta adjudikazioaren ondotik, egun lanak egiten ari dira eta aurreikusiten da Zentroa aurtengo azken hiruhilekoan inauguratuko dela.

"Erriberriko Mahastiaren eta Ardoaren Erakusketa Zentroa" delakoaren etorkizuneko kudeaketa lehiaketa egin ondotik adjudikazio hartzaile izan den enpresa pribatuak eginen du.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 7an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

## Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ardoa sustatu eta merkaturatzeko kanpaina bat egin dezan"

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ardoa sustatu eta merkaturatzeko kanpaina bat egin dezan".»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna,

na, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Cristóbal García jaunak galdera egin du Parlamentuak onetsitako erabaki bat, Nafarroako Gobernuak Nafarroako ardoa sustatu eta merkaturatzeko kanpaina bat egitera premiatzen zuena, betetzeari buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi kontseilariaren erantzuna:

2001eko otsailaren 13an, Nafarroako Parlamentuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak honako erabaki hau hartu zuen:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du bi hilabeteko epean kanpaina bat egin dezan Nafarroako ardoaren sustatze eta merkaturatzean eragiteko. Kanpainaren helburua salmentak eta, ondorioz, Nafarroako mahastizainek dituzten prezio-baldintzak hobetzea izan da; horrela, sektorean eginiko inbertsioen errentagarritasuna bermatuko da”.

Erabaki hori betetzeko, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Departamentuak publizitatea finantzatu zuen Nafarroako egunkari zabalduenetan eta Club Atlético Osasunak argitaratzen duen aldizkarian.

Iragarkiak hitzez hitz aipatzen du erabaki hori, eta Nafarroako ardoaren kontsumo neurritzeko gomendatzen du, Europako Batasunaren araudia urratzeagatik etor zitezkeen ondorioen aurrean babestearren, Nafarroako Gobernuak ez baitu eskumenik horrelako kanpainak egiteko, Nafarroa Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arau-emaileak baidiz.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 7an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria Ignacio Javier Martínez Alfaro

## **Galdera, gazteen elkarten jarduerari ematen zaizkien dirulaguntzei buruzkoa**

**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak gazteen elkarten jarduerari ematen zaizkien dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du gazteen elkarten jarduerari ematen zaizkien dirulaguntzei buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengo jarraikiz.

1988ko azaroaren 30eko 1140/88 Foru Aginduaren 2.1 artikuluan e) letraren arabera inskribaturiko gazte elkarteetatik zeinek jaso du Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza azken zazpi urteotan? Zehaztu elkarte bakoitzak ekitaldi bakoitzean, 2002. urtera arte, jasotako zenbatekoa zein izan den.

Zein dira azken zazpi urteotan dirulaguntzarik jaso ez duten gazte elkarten dirulaguntzak? Zein laguntza horiek ukatzeko arrazoiak?

Gaur egun, gazte elkarteak gazteen entitateen zentsuan sartzea arautzen duen foru agindua ez da azaroaren 30eko 1140/88 Foru Agindua, zure idazkian aipatzen den bezala, baizik eta otsailaren 23ko 21/2001 Foru Agindua.

Nafarroako Gobernuak gazteen entitateen zentsuaren E letran bere garaian inskribaturiko elkarten jarduerak gauzatzeko dirulaguntza eskaera guztiei eman zaie erantzuna, ehuneko bereko dirulaguntzak emanez, kasuan kasuko deialdiari lotzen ez zitzaizkionak kenduta.

Azken zazpi urteotan Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuari dirulaguntza eskatu dioten alderdi politikoetako gazte- taldeen zerrenda hauxe da:

1995ean:	Onarturiko gastua	Emaniko dirulaguntza
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Juventudes Navarras</li> <li>• Euskadiko Gazteri Komunista</li> <li>• Gazte Abertzaleak</li> </ul> (2. zatia ez zuten justifikatu)		284.070 pezeta 23.183 pezeta 122.282 pezeta
1996an	Onarturiko gastua	Emaniko dirulaguntza
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskadiko Gazteri Komunista</li> <li>• Juventudes Navarras</li> </ul>	55.243 pezeta 1.000.000 pezeta	19.092 pezeta 345.600 pezeta
1997an	Onarturiko gastua	Emaniko dirulaguntza
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Federación de Juventudes Comunistas Revolucionarias</li> <li>• Euskadiko Gazteri Komunista</li> <li>• Juventudes Navarras</li> </ul>	922.593 pezeta 32.559 pezeta 2.504.873 pezeta	258.326 pezeta 9.117 pezeta 701.364 pezeta
1998an	Onarturiko gastua	Emaniko dirulaguntza
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Federación de Juventudes Comunistas Revolucionarias</li> <li>• Juventudes Navarras</li> <li>• Juventudes Socialistas de Navarra</li> </ul>	160.324 pezeta 1.560.423 pezeta 46.400 pezeta	60.442 pezeta 588.279 pezeta 17.493 pezeta
1999an	Onarturiko gastua	Emaniko dirulaguntza
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Juventudes Socialistas de Navarra</li> <li>• Juventudes Navarras</li> <li>• Federación de Juventudes Comunistas Revolucionarias</li> </ul>	35.440 pezeta 1.042.775 pezeta 1.582.625 pezeta	13.542 pezeta 398.465 pezeta 604.753 pezeta
2000an	Onarturiko gastua	Emaniko dirulaguntza
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Federación de Juventudes Comunistas Revolucionarias</li> <li>• Juventudes Socialistas de Navarra</li> <li>• Area de Juventud de Izquierda Unida</li> <li>• Juventudes Socialistas de Navarra</li> </ul> Informatikako ekipamendua (bi egoitza)	1.133.769 pezeta 248.073 pezeta 311.120 pezeta	568.018 pezeta 124.285 pezeta 155.871 pezeta 300.000 pezeta
2001ean	Onarturiko gastua	Emaniko dirulaguntza
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Juventudes Navarras</li> <li>• Juventudes Socialistas de Navarra</li> </ul>	2.601.999 pezeta 243.290 pezeta	1.340.029 pezeta 125.294 pezeta



Azken zazpi urteotan dirulaguntzarik jaso ez duten gazte elkarteen jarduerak zein diren ez dakigu, ez baitute dirulaguntza eskaerarik aurkeztu deialdian.

Alderdi politikoetako gazte-taldeak, egun zentsuan izaera horrekin ageri direnak:

- Federación de Juventudes Comunistas Revolucionarias / Iraultza Taldea. IFZ: G28.664.050.

- Juventudes Navarras. IFZ: G31.216.005.

- Juventudes Socialistas de Navarra. IFZ: G28.477.727.

- Eusko Alkartasuna / Gazte Abertzaleak. IFZ: G01.035.062

- Sección Juvenil de Jóvenes Demócratas de Navarra / Nafarroako Gazte Demokratak. IFZ: G31.610.751.

- Area de Juventud de Izquierda Unida de Navarra / N.E.B.G.A. IFZ: G31.701.667.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 16an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:  
Calixto Ayesa Dianda

## **Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enpresa pribatuekin hitzarmen bakarra sina dezan ezgaituen zentro publiko hitzartuetarako”**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enpresa pribatuekin hitzarmen bakarra sina dezan ezgaituen zentro publiko hitzartuetarako”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak galdera egin du Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabaki bat betetzeari buruz: “Nafarroako Gobernua premiatzen du enpresa pribatuekin hitzarmen bakarra sina dezan ezgaituen zentro publiko hitzartuetarako”. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengo-  
ei jarraikiz.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua ezgaituen zentro publiko hitzartuetarako enpresa pribatuekin hitzarmen bakarra sina dezan premiatzen duen erabakia, Gizarte Gaietako Batzordeak 2002ko maiatzaren 27an onartua, bete al da?

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan aztertzen ari da egun hitzarmen bakarra lortzeko sindikatuek eta entitate itunduek landu beharko duten plataformaren edukia. Nabarmendu behar dugu lanerako esku artean dugun erreferente bakarra gaur egun zentroen egoera bera dela, aztertu ditugun lan hitzarmenak, bai esparru nazionalekoak bai beste autonomia erkidego batzuetakoak, gure zentroetan dauden hitzarmenen azpitik daudelako.

Gogoratu beharra dago langileen lan baldintzak itunaren adjudikazioa hartu duen entitate pribatuaren eta bertako langileen artean langileen estatutuaren eta lan hitzarmenen bidez ezartzen den harreman juridikoari zor zaizkiola. Harreman juridiko horrek ez du loturarik administrazioaren eta zerbitzuaren kudeaketaren adjudikazioa hartzen duen enpresaren artean ezartzen denarekin. Beraz, administratibotik egin dezakegun bakarra da hitzarmena negoziatzeko baldintzak ezartzen

lagundu, baina inola ere ez esku hartu negoziazioan.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 16an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:  
Calixto Ayesa Dianda

## **Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitateko etorkinei buruzko politika koordinatzeko batzorde bat sor dezan”**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitateko etorkinei buruzko politika koordinatzeko batzorde bat sor dezan”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak galdera egin du Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabaki bat betetzeari buruz: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitateko etorkinei buruzko politika koordinatzeko batzorde bat sor dezan”. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikuluari eta hurrengo jarraikiz.

Nafarroako Gobernua Foru Komunitateko etorkinei buruzko politika koordinatzeko batzorde bat sor dezan premiatzen duen erabakia, Gizarte Gaietako Batzordeak 2001eko azaroaren 13an onartua, bete al da?

Nafarroako Gobernuak ez du bete Foru Komunitateko etorkinei buruzko politika koordinatzeko batzorde bat sor dezan premiatzen duen erabakia.

Arrazoa da 2001eko azaroan Nafarroako Gobernuak “Etorkinen gizarte integrazioarako

plana” izenekoaren proiektua igorri zuela Parlamentura, Biltzarrak eztabaidatu eta egokitzat jotzen dituen aldaketak eginik onetsi dezan.

Plan horrek bere jarraipena egiteko batzorde bat sortzea proposatzen du. Batzorde horretan honako hauen ordezkariak izanen dira: Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteriaren Zuzendaritza Nagusia, Etxebizitza Zuzendaritza Nagusia, Osasun Zuzendaritza Nagusia, Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia, Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia, Lan Zuzendaritza Nagusia, Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, Sindikatuak eta enpresa elkarteak, bai eta etorkinekin lanean aritzen diren gizarte ekimeneko entitateenak eta etorkinen elkarteenak ere, horiei guztiei Espainiako Gobernuaren ordezkaria gehituta. Eginkizun hauek izanen ditu batzordeak:

Etorkinak gizartean integartzeko planaren ezarpena gainbegiratu eta koordinatzea.

Beharrezkoa den koordinazioa ezartzea departamentuen artean eta arlo desberdinetan plana garatzen bere gain ardurak hartuko dituzten entitateen eta erakundeen artean ere.

Neurri zuzentzaileak proposatzea.

Etorkinen elkarteen eta gizarte ekimeneko entitateen ordezkarien proposamenak jaso eta bideratzea.

Planean aurreikusitako neurri guztiek eragina dutenez Foru Komunitateko immigrazio politika guztietan, ez dirudi zentzuzkoa koordinazioarako beste tresna bat sortzea.

Nafarroako Parlamentuak dokumentuaren inguruan hartuko duen erabakiaren zain dago Nafarroako Gobernua, eta dokumentuaren barrenean, jarraipen batzordearen inguruan ere; horre-

xegatik ez da bete 2001eko azaroaren 14ko erabakia.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 16an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:  
Calixto Ayesa Dianda

---

**Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua eta Estatu espainiarreko Gobernua premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten garapenaren aldeko lankidetzari dagokionez”**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua eta Estatu espainiarreko Gobernua premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten garapenaren aldeko lankidetzari dagokionez”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak galdera egin du Nafarroako Par-

lamentuak onetsitako erabaki bat betetzeari buruz: “Nafarroako Gobernua eta Estatu espainiarreko Gobernua premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten garapenaren aldeko lankidetzari dagokionez”. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoei jarraikiz.

Nafarroako Gobernua garapenaren aldeko lankidetzari dagokionez zenbait neurri har ditzan premiatzen duen erabakia, Osoko Bilkurak 2001eko irailaren 20an onartua, bete al da?

Ezinezkoa izan da kontusaila handitzea, aurrekontuaren luzapena dela-eta.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 16an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:  
Calixto Ayesa Dianda

## **Galdera, SOS Nafarroako sendagileen lanpostuen bitarteko izaera konpontzeko Nafarroako Gobernua premiatzen duen erabakiaren aplikazioari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal eta Isabel Arboniés Bermejo andre-ek SOS Nafarroako sendagileen lanpostuen bitarteko izaera konpontzeko Nafarroako Gobernua premiatzen duen erabakiaren aplikazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 4ko 73. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés andreak, 2002ko ekainaren 18an, galdera egin dute Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: "Nafarroako Gobernua premiatzen da SOS Nafarroako sendagileen lanpostuen bitarteko izaera konpontzeko". Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren jokabidea bitarteko izaeraz betetako lanpostu hutsak betetzeari dagokionez Foru Komunitateko administrazioaren esparruan indarra duen araudian xedatutakoari lotzen zaio.

Gaur egun, araudi hori, funtsean urtarrilaren 7ko 1/2002 Foru Dekretua da, Foru Komunitateko administrazioan eta haren erakunde autonomoetan langileen administrazio-kontratazioa arautzen duena; 5.3 artikuluan xedatzen du: aldi baterako kontratazioen bitartez, hiru urtez edo hortik goiti bete diren lanpostu hutsak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan onesten den hurrengo lan eskaintza publikoan sartuko dira. Arau horren xedapen iragankor bakarraren arabera, epea foru dekretuak indarra hartzen duenean hasiko da.

Komeni da azpimarratzea arau hori administrazioak eta sindikatu gehienek ordezkaritzak Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko langile-

en 2000. eta 2001. urteetarako lan baldintzei buruzko Itunaren garapen eta jarraipenerako batzorde paritarioan lortu zuten akordioaren emaitza dela.

Bestalde, bidezkoa da gogoratzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren menpeko langileak sailkatuak dauden estamentu eta espezialitateen katalogoa urriaren 20ko 11/1992 Foru legearen eranskinean ezarri zela, maila bereko arau bidez ondoren eginiko aldaketekin. Hori dela eta, edozein berrikuspen foru lege mailako arau berriazko baten bidez gauzatu beharko da.

Halere, adierazi behar da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak egiaztatu duela komeni dela aldaketa batzuk egitea estamentu eta espezialitateen katalogo horretan, eta badira azterlan batzuk eginak gai horri buruz.

SOS Nafarroa Zerbitzua unitatetzat hartzeari dagokionez, berriz, ohar batzuk egin behar ditugu.

Koordinazio operatiboko zentroan lanean ari ziren sendagileak Zerbitzu arruntan eta berezien Burutzaren menpe daude organikoki, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarrizko Osasun laguntzaren eta Adimen osasunaren Zuzendaritzaren esparruan, abenduaren 26ko 604/1995 Foru Dekretuaren 37.3 artikuluan xedatu bezala.

Beste alde batetik, "SOS Nafarroa osasun laguntza bereziko unitate bat dela aitortzea" antolakuntzaren arloan oro har onartzen den irizpide baten kontrakoa da, alegia ospitalez kanpoko larrialdi zerbitzuetan koordinazio eginkizunak eta laguntzakoak ez bereiztean oinarritzen dena.

Nolanahi ere, aipatutakoaz gain, adierazi behar da mozioaren hirugarren puntuan dagoen eskaerak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari-kudeatzaileak emaniko 235/2002 Ebazpenaren bidez onetsi zen eta abian den deialdiaren aldaketa bat dakarren aldetik, Administrazio Publikoaren araubide juridikoari eta guztientzako administrazio prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 105.1 artikuluan xedatutakoa urratzen duela eta, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak agindu horri emaniko testuan; eskaera horri ezin zaio erantzun aplikatzen den legeko araudia urratu gabe.

SOS Nafarroa zerbitzuko profesionalen egoera kaskarrari irtenbidea emateko daten inguruan esan beharra dago onartezina dela esatea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren egitura organikoan lanpostu hutsak aldi baterako betetzen ari direnen egoera kaskarra dela, legez oso ongi definiturik dagoelako, eta horien izendapenak, indarraldiari dagokionez, lanpostu horiek behin betikoz betetzearen menpe (prozesua abian da) edo horien amortizazioaren menpe daudelarik.

Bestetik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren jarduketak kasu honetan nola gaineraoetan, ez daude bideraturik profesional jakin batzuen egoera partikularrari irtenbidea ematera, baizik eta unitate organikoetako langileen plantilla sendotu eta modu erregularrean betetzera.

Testuinguru horretan, azken urteotan hartutako neurriak asko dira, baina bi batez ere nabarmentzen dira:

a) Bata, lan eskaintza publikoaren konpromisoak, foru administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen baldintzei buruzko akordioetan islatutakoak, besteak beste hutsik dauden lanpostuak betetzea eta aldi baterako kontratazio egonkorra plantilla organikoan sendotzea.

b) Bestea, urtarrilaren 7ko 1/2002 Foru Dekretuan dauden arauak, bereziki eginkortasunaren printzipio aitortuari dagokionez, aldi baterako kontratu mota ezberdinen iraupenarekiko eta iraungitzeko arrazoiekiko, eta lan eskaintza publikoan aldi baterako betetako lanpostuak zenbait epe

batez gero sartzeko konpromisoak ezartzeari dagokionez.

Aurreikuspen horiei gehitu behar zaie 2002ko apirilaren 15ean foru administrazioak eta UGT, CCOO eta CEMSATSE sindikatuek izenpetu zuten Nafarroako administrazio publikoetako langileen 2002. eta 2003. urteetarako lan baldintzei buruzko itunaren laugarren klausulan dagoena. Horretan erabaki zen, fakultatiboen lanpostuei buruz, 2000ko lan eskaintza publikoko hautapen probak, egun abian direnak, egitea Osasun sistema nazionalako osasun zerbitzuetako osasun erakundeetan estatutupeko langileen lanpostuak sendotu eta betetzeko prozesu berezia ezarri zuen azaroaren 21eko 16/2001 Legeari jarraikiz; konpromiso hori zabaldu egiten da prozesuari sendotzeko modukoak diren lanpostu hutsak eta egiturazkoak gehituz.

Aipatutako aurrekarien eta konpromisoen ondorioz, pentsatzekoa da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emaniko 235/2002 Ebazpenaren bidez deitutako hautapen prozesuko probak 2003ko lehen hiruhilabetean egingen direla, eta horren bidez beteko dira behin betikoz SOS Nafarroako Koordinazio Operatiboko Zentroko sendagileen lanpostuak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 1ean

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Galdera, asteburuetan emakumeentzako larrialdietako laguntza bermaturik ote dagoen itauntzen duena**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak asteburuetan emakumeentzako larrialdietako laguntza bermaturik ote dagoen itauntzen duen galdera egin zuen. Galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko ekainaren 24ko 69. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, 2002ko ekainaren 28an galdera egin zuen asteburuetan emakumeentzako larrialdietako laguntza bermaturik ote dagoen jakiteko. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Larrialdietan ematen den antisorgailua Levonorgestrel (Norlevo®, Postinor®) da, koitoaren

ondoko ahotiko antisorgailu gisa monoterapiaren erabilitako progestageno bat, eta Yzpe metodoa ere erabiltzen da. Metodo hori zabalduena eta FDA erakundeak eta OMEk gomendatua da; guztira 200 mg etinilestradiol eta mg 1 levonorgestrel ematen dira, baina bi dositan, batetik bestera 12 orduko tartea utzirik.

Koitoaren ondoko pilula emakumeentzako laguntza zentroetan eta ginekologia arloko guardia duten ospitaleetako larrialdietako zerbitzuetan ematen da, eta horrela bermatzen da larrialdietako antisorgailuak eskura izatea 24 orduan.

Osasun Departamentuak informazio kanpaina bat egin zuen, "neurriak aurretik, onurak ondotik", "previene-te-conviene.com" izeneko web orria barne, herritarrek etengabe eskura dezaten informazioa.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 1ean

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Galdera, koitoaren ondoko pilula zein baldintzatan banatzen den itauntzen duena**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Batasuna Parlamentuko Taldeak koitoaren ondoko pilula zein baldintzatan banatzen den itauntzen duen galdera egin zuen. Galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko ekainaren 19ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Batasuna Parlamentuko Taldeak, 2002ko ekainaren 6an, galdera egin zuen koitoaren ondoko

pilula zein baldintzatan banatzen den jakiteko. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Larrialdietan ematen den antisorgailua Levonorgestrel (Norlevo®, Postinor®) da, koitoaren ondoko ahotiko antisorgailu gisa monoterapiaren erabilitako progestágeno bat, eta Yzpe metodoa ere erabiltzen da. Metodo hori zabalduena eta FDA erakundeak eta OMEk gomendatua da; guztira 200 mg etinilestradiol eta mg 1 levonorgestrel ematen dira, baina bi dositan, batetik bestera 12 orduko tartea utzirik.

Koitoaren ondoko pilula emakumeentzako laguntza zentroetan eta ginekologia arloko guardia duten ospitaleetako larrialdietako zerbitzuetan ematen da, eta horrela bermatzen da larrialdietako

ko antisorgailuak eskura izatea 24 ordutan. Sanferminetan berdin eginen da.

Osasun Departamentuak informazio kanpaina bat egin zuen, "neurriak aurretik, onurak ondotik", "previene-te-conviene.com" izeneko web orria barne, herritarrek etengabe eskura dezaten informazioa.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 1ean

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## Galdera, Foru Komunitateko Onkologia planeko erradioterapiako ekipoei eta obrei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Foru Komunitateko Onkologia planeko erradioterapiako ekipoei eta obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko ekainaren 11ko 65. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, 2002ko ekainaren 19an, galdera egin du aurrekontuko zein kontusail erabiliko den Iruñeko Irunlarrean tratamendu onkologikorako eraikin bat eraikitzeke aurreproiektuaren erre-

dakzioa egiteko eta erradioterapiako ekipoak erosteko lehiaketa ordaintzeko. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak abenduaren 14an emandako 1730/2002 Ebazpenaren kasuan, hau da, Iruñeko Irunlarrean tratamendu onkologikorako eraikin bat eraikitzeke aurreproiektuaren erredakzioa eta 1. fasearen proiektuarena (erradioterapiako arloa) 216.310,27 euroko zenbatekoarekin adjudikatu zituena, aipatu behar da gastua Nafarroako Ospitalearen 2002ko ekitaldiko gastuen aurrekontuaren 542000-52230-412703 kontusailari egotzi zaiola, dirua egoteko baldintzarekin.

Osasunbidearen zuzendari kudeatzaileak abenduaren 21ean emaniko 1796/2001 Ebazpenaren kasuan, hau da, erradioterapiako ekipoak erosteko lehiaketa 4.207.084,73 euroko zenbateko osoarekin adjudikatu zuena, gastua aurrekontualdi eta kontusail hauei egotzi zaie:

AURREKONTUALDIA	IZENA	KONTUSAILA	ZENBATEKOA
2001	"Zerbitzu Zentralen jarduerak	540003-52000-6020-412700	250.000.000 pta 1.502.530,26 euro
2002	"Nafarroako Ospitalearen jarduerak"	50.000.000 pta	300.506,05 euro
2003	"Nafarroako Ospitalearen jarduerak"	200.000.000 pta	1.202.024,21 euro
2004	"Nafarroako Ospitalearen jarduerak"	200.000.000 pta	1.202.024,21 euro

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 1ean

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

**Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea bete dezan”**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea bete dezan”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea betetzeari buruz.

Nafarroako Gobernua Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea bete dezan premiatzen duen erabakia, Toki Administraziooko Batzordeak 2002ko otsailaren 5ean onartua, bete al da?

Nafarroako Gobernuko Toki Administraziooko Departamentuak ez du tasa edo prezio publikorik jasotzen.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 27an

Toki Administraziooko kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

**Galdera, Alimentos Congelados (ACSA) enpresari buruzkoa**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Alimentos Congelados (ACSA) enpresari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko irailaren 9ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak galdera egin du Alimentos Congelados (ACSA) enpresari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andreak kabineteko buru Jorge Nagore Frauca jaunaren erantzuna.

1.



Esped. zenb.	Eginiko inbertsioak	Ordaindutako dirulaguntzak	Inbertsio ez-aktiboak	Eskatutako dirulaguntzak
35/94	145.215.626	24.013.535		0
18/95	326.426.467	55.492.500		0
138/95	144.907.028	7.245.351		0
1/97	130.096.241	20.815.399	31.768.769	1.016.600
11/98	149.515.428	23.922.468	82.864.420	5.303.307
10/99	160.500.000	27.285.000		

Aurreko espedienteez hauxe adierazten ahal da:

a) Laguntza hauen arloan indarra duen araudia aplikatuta, enpresak bete behar duen baldintza da diruz lagundutako ondasunak 5 urtez aktibo mantentzea.

Diruz lagundutako ondasun bat saltzean edo geldi bihurtzean dirulaguntzak itzultzea eskatzen zaio horien jardun-epearen arabera. 1997an eginiko inbertsioen truke, 4 urtez egon baitira jardunean, urte bat dagokion dirulaguntza eskatu zaie. 1998an eginiko inbertsioen truke, 3 urtez egon baitira jardunean, bi urte dagokien dirulaguntza eskatu zaie.

10/99 espedientetik 160,5 milioi pezetako inbertsioei 27,2 milioi pezetako laguntzak eman zitzaizkien, baina oraindik ez da diru zenbatekorik

ordaindu. Eginiko inbertsioak egiaztatzen ari dira orain, kasuan kasuko dirulaguntza ordaintzeko.

Aurreko atalean aipatutako finantza laguntzez gain, Banaketa Zentroa eraikitzeagatik 1997/1998 urteetan 160.157.663 pezetako kenkari berezia eman zitzaion -eginiko inbertsioa 640.626.659 pezetakoa izan zen-.

Inbertsio horietatik ez zaie ezer eskatu jardunean baitago gaur egun.

2. EZ

3. EZ

Iruñean, 2002ko irailaren 6an

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren kabineteko burua: Jorge Nagore Frauca

## **Galdera, Fundación para la Investigación Médica Aplicada erakundearekin sinaturiko lankidetzaren protokoloari buruzkoa**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Fundación para la Investigación Médica Aplicada erakundearekin sinaturiko lankidetzaren protokoloari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 4ko 73. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak galdera egin du Fundación para la Investigación Médica Aplicada erakundearekin sinaturiko lankidetzaren protokoloari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren Kabineteko buru Jorge Nagore Frauca jaunaren erantzuna.

Medikuntza Aplikatuaren Ikerketa Zentroaren finantzaketan laguntzea Nafarroako Gobernuak 1999ko martxoaren 15ean hartutako erabakiaren bidez onetsi zen Nafarroako Plan Teknologikoan

aurreikusiriko "proiektu sektorial eta tematikoak" izenekoetako bat da.

Plan Teknologiarren kargura eginiko ekarpena 1.502.530,26 eurokoa da (250.000.000 pezeta); kopuru hori Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren 2003ko aurrekontuetan kontsignaturik dago, proiektu sektorial eta tematikoetarako kapital transferentziak izeneko kontusail batean.

Hasieran aurreikusitako inbertsioa, Plan Teknologikoan aurreikusitakoa, 16.467.732 eurokoa da (2.740.000.000 pezeta).

Une hauetan, Fundación para la Investigación Médica Aplicada izenekoak zentroa eraikitzeko behin betiko proiektua noiz aurkeztu, Nafarroako Gobernuaren ekarpena formalizatzeko horretan oinarriturik.

Zenbatekoa kontuan harturik, ekarpena Nafarroako Gobernuaren erabakiaren bidez egin beharko da. Ez dago egun inolako hitzarmenik Gobernuaren eta Fundazioaren arteko lankidetzarako, aipatutakoaz landara.

Lehendabiziko plan teknologikotik aurrerako aurreikuspenei dagokienez, etorkizunean jarduketak gauzatu ahal izanen dira Fundazioan, etor daitezkeen planifikazioen ondorioz (bigarren plan teknologikoaren prestalanetan ari gara dagoeneko), edo unean-unean indarra duten ikerketarako laguntzak jaso ahalko ditu.

Iruñean, 2002ko irailaren 6an

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren Kabineteko burua:  
Jorge Nagore Frauca

## **Galdera, zenbait herritako D ereduko ikasleentzat antolaturiko eskola-garraiorako laguntzei buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak zenbait herritako D ereduko ikasleentzat antolaturiko eskola-garraiorako laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko ekainaren 19ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti andreak galdera egin du zenbait herritako D ereduko ikasleentzat antolaturiko eskola-garraiorako laguntzei buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

1. Eskola garraioaren antolamendu eta jardunbidearen gaineko egungo araudiarekin bat, garraio zerbitzu horretarako eskubidea dute haur hezkuntza, lehen hezkuntza, derrigorrezko bigarren hezkuntza, hezkuntza berezia, lanbide heziketa berezia eta lanbide hastapen bereziko pro-

gramak Nafarroako Gobernuaren menpeko ikastetxe publikoetan ikasten ari diren ikasleek, betiere ikastetxea ikaslearen bizitokia ez den beste herri batean badago. Eskola eremuak martxoaren 3ko 69/1995 Foru Dekretuan, martxoaren 13ko 150/1996 Foru Dekretuan eta martxoaren 30eko 109/1998 Foru Dekretuan daude ezarririk. Araudi horren arabera, galderan aipatzen diren herrietako ikasleek ez dute Lizarrara joateko doako garraio zerbitzurako eskubiderik.

Nolanahi ere Hezkuntza eta Kultura Departamentuak antolatu eta finantzaturiko eskola garraioa ibilbideak errentagarriak izan daitezzen, ibilgailuetan tokia dagoenean eskatzen duten ikasleen esku jartzen da, doako garraiorako eskubiderik ez badute ere, betiere, horrek ez badu ibilbidea luzatzen edo geldialdien kopurua gehitzen. Neurri horren onura dute galderan aipatzen diren herrietako ikasleek, Lizarrara joaten direnek.

2. "Remontival" ikastetxe publikora doan eskola garraioa ibilbideetan kendutako geltoki bakarra, egun daudenekin alderaturik, Allokkoa da. Herri horrek badu bere ikastetxe publikoa eta beraz hango ikasleek ez dute doako garraiorako eskubiderik. Horrenbestez ez da bidezkoa Allon geltokia egotea, eta datorren ikasturtean ibilbidea Morentinen hasiko da. Lodosa, Deikaztelu eta

Sesmako ikasleek, garraio honen onura zutenek, berdin segituko dute, hala eskatuz gero eta tokia baldin badago, eta Morentingo geltokian igo beharko dute; Murieta eta Nazarkoek Antzinen eta Mirafuenteskoek Okon.

Komeni da gogoraraztea aipatutako herri guztietako ikasleek aukera dutela G ereduan zein A ereduan eskolatzeko eremuaren arabera dagoen ikastetxe publikoan. Horrez gain, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, Euskara Zerbitzua-

ren bidez, garraio eta jantokiko laguntzak ematen dizkie D ereduko ikastetxe bat libreki hautatu izanagatik herritik kanpora joan behar duten ikasleei.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 6an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús M<sup>a</sup> Laguna Peña

## **Galdera, Nafarroako Gobernuko kontseilariek eta zuzendari nagusiek gobernuaren partaidetza duten sozietateetan parte hartzeari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak Nafarroako Gobernuko kontseilariek eta zuzendari nagusiek gobernuaren partaidetza duten sozietateetan parte hartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko maiatzaren 13ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### AGENCIA NAVARRA DE INNOVACIÓN

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK
Nuria Iturriagagoitia	7 / 7	Ordainsaririk gabeko kontseilua
Francisco Iribarren	7 / 7	"
Jesús Laguna	7 / 7	"
José Ignacio Palacios	7 / 7	"
Ignacio M. Alfaro	6 / 7	"
Javier Marcotegui	7 / 7	"
Santiago Cervera	2 / 7	"

### AUTOPISTAS DE NAVARRA S.A. "AUDENASA"

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK		
		1999	2000	2001
Álvaro Miranda	25 / 25	1.311.905	1.338.148	1.365.000
Ángel Sanz	24 / 25	1.311.905	1.338.148	1.365.000
José Javier Armendáriz	25 / 25	1.311.905	1.338.148	1.365.000
José Ángel Zubiaur	21 / 21	562.245	1.338.148	1.365.000

## BALUARTE PALACIO DE CONGRESOS Y AUDITORIO DE NAVARRA, S.A.

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK		
Nuria Iturriagagoitia	8 / 10	Ordainsaririk gabea		
Jesús Laguna Peña	6 / 10	Ordainsaririk gabea		
		2000	2001	
Juan Ramón Corpas	8 / 10	630.000	630.000	
Santiago Arellano	7 / 10	630.000	630.000	

## CENTRO EUROPEO DE EMPRESAS E INNOVACION DE NAVARRA. "CEIN".

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK		
Nuria Iturriagagoitia	6/6	Ordainsaririk gabeko kontseilua		
Enrique Jiménez	4/6	"	"	
José María Roig	5/6	"	"	

## CENTRO NAVARRO DE AUTOAPRENDIZAJE DE IDIOMAS, S.A.

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK		
Jesús M <sup>a</sup> Laguna	2 / 3	Ordainsaririk gabea		
Santiago Arellano	3 / 3	630.000		

## CENTROS TECNOLOGICOS DE NAVARRA ."CETENASA".

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK		
Nuria Iturriagagoitia	10 / 11	Ordainsaririk gabeko kontseilua		
Enrique Jiménez	11 / 11	"	"	

## CIUDAD DEL TRANSPORTE DE PAMPLONA S.A.

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK		
J. Ignacio Palacios	15 / 16	Ordainsaririk gabea		
Ángel Sanz	9 / 13	Ordainsaririk gabea		
		1999	2000	2001
Álvaro Miranda	1 / 1	NM	151.809	NM

## FUNDICIONES DE VERA. S.A. "FUNVERA"

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK		
Jose María Roig	12 / 12	500.000		

## GESTIÓN AMBIENTAL VIVEROS Y REPOBLACIONES DE NAVARRA, S.A.

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK		
		1999	2000	2001
Jesús J. Marcotegui	3 / 3	262.356	630.000	630.000
Ignacio Elorrieta	3 / 3	630.000	630.000	630.000

## GESTION DE DEUDAS, S.A. "GEDESA".

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK
José Javier Armendáriz	16 / 17	Ordainsaririk gabea
José M <sup>a</sup> Jiménez Bolea	14 / 17	630.000

## INSTITUTO DE CALIDAD AGROALIMENTARIA DE NAVARRA, S.A.

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK	
Ignacio M. Alfaro	5 / 5	Ordainsaririk gabea	
		2000	2001
Andrés Eciolaza	5 / 5	630.000	630.000

## INSTITUTO TECNICO Y DE GESTION AGRICOLA, S.A.

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK
Ignacio M. Alfaro	3 / 3	Ordainsaririk gabeko kontseilua
Javier Enériz	3 / 3	Ordainsaririk gabeko kontseilua

## INSTITUTO TÉCNICO Y DE GESTIÓN GANADERO, S.A.

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK
Ignacio M. Alfaro	5 / 5	Ordainsaririk gabeko kontseilua
F. Javier Enériz	4 / 5	Ordainsaririk gabeko kontseilua

## NAVARRA DE FINANCIACIÓN Y CONTROL. "NAFINCO".

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK		
Francisco Iribarren	14 / 14	Ordainsaririk gabea		
Nuria Iturriagoitia	11 / 14	Ordainsaririk gabea		
José Javier Armendáriz	13 / 14	Ordainsaririk gabea		
		1999	2000	2001
Enrique Jiménez	14 / 14	630.000	630.000	630.000
José Ángel Zubiaur	7 / 7	52.500	630.000	630.000
José María Roig	7 / 7	52.500	630.000	630.000
Javier Taberna	7 / 7	52.500	630.000	630.000

## NAVARRA DE INFRAESTRUCTURAS LOCALES, S.A. "NILSA"

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK		
		1999	2000	2001
Rafael Gurrea	7 / 7	630.000	630.000	630.000
J.Frommkecht	6 / 7	630.000	630.000	630.000
J.R.Rábade	7 / 7	630.000	630.000	630.000
J.L Alli	5 / 7	630.000	630.000	630.000

## NAVARRA DE MEDIO AMBIENTE INDUSTRIAL, S.A. "NAMAINSA".

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK		
		1999	2000	2001
Javier Marcotegui	6 / 6	Ordainsaririk gabea		
Nuria Iturriagagoitia	5 / 6	Ordainsaririk gabea		
Ignacio Elorrieta	6 / 6	0	630.000	630.000
José M <sup>a</sup> Abad	5 / 6	630.000	630.000	630.000
Jesús Ramón Loitegui	5 / 6	630.000	630.000	630.000
Santiago Arellano	1 / 1	630.000	NM	NM
Juan Ramón Corpas	3 / 5	NM	630.000	630.000

## NAVARRA DE SUELO INDUSTRIAL, S.A."NASUINSA".

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK		
		1999	2000	2001
Enrique Jiménez	24 / 24	630.000	630.000	630.000
Luis Zarraluqui	8 / 16	Ordainsaririk gabea		

## NAVARRA DE SERVICIOS, S.A. "NASERSA".

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK		
		1999	2000	2001
F. Javier Enériz	4 / 4	630.000	630.000	630.000
Ignacio Bandrés	4 / 4	630.000	630.000	630.000

## NAVARRA DE SUELO RESIDENCIAL, S.A. "NASURSA"

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK		
		1999	2000	2001
Javier Marcotegui	5 / 5	Ordainsaririk gabea		
Luis Zarraluqui	5 / 5	1.260.000		

## OBRAS PUBLICAS Y TELECOMUNICACIONES DE NAVARRA, S.A. "OPNATEL"

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK		
		1999	2000	2001
J. Ignacio Palacios	6 / 6	630.000	630.000	630.000
Angel Sanz	6 / 6	630.000	630.000	630.000

## ORGANIZACIÓN DE LA PATATA EN EL PIRINEO OCCIDENTAL, S.A. "OPPOSA"

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK
Francisco J. Enériz	8 / 17	Ordainsaririk gabeko kontseilua

## PAMPLONA CONVENTION BUREAU

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK
Nuria Iturriagagoitia	7 / 7	Ordainsaririk gabeko kontseilua
Javier Taberna Aldaz	7/7	Ordainsaririk gabeko kontseilua

## PLANETARIO DE PAMPLONA, S.A.

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK
Jesús M <sup>a</sup> Laguna	5 / 7	Ordainsaririk gabeko kontseilua
Santiago Arellano	3 / 7	Ordainsaririk gabeko kontseilua
Juan Ramón Corpas	4 / 7	Ordainsaririk gabeko kontseilua

## POTASAS DE SUBIZA, S.A. "POSUSA"

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK
Francisco Iribarren	13/ 18	Ordainsaririk gabea
José Javier Armendáriz	17/18	1.001.790
Javier Enériz	16/18	1.001.790

## RIEGOS DE NAVARRA, S.A.

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK
Ignacio J. Martínez Alfaro	6 / 6	Ordainsaririk gabea

## SOCIEDAD NAVARRA DE GARANTIA RECIPROCA "SONAGAR"

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK
Enrique Jiménez	12 / 12	Ordainsaririk gabeko kontseilua

## SAL DOMESTICA S.A. "SALDOSA"

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK
Francisco Iribarren	13 / 18	Ordainsaririk gabea
José Javier Armendáriz	17/ 18	Ordainsaririk gabea

## SOCIEDAD DE DESARROLLO DE NAVARRA. "SODENA"

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK		
Nuria Iturriagagoitia	13 / 13	Ordainsaririk gabea		
Francisco Iribarren	11 / 13	Ordainsaririk gabea		
Enrique Jiménez	10 / 13	Ordainsaririk gabea		
José J. Armendáriz	11 / 13	Ordainsaririk gabea		
		1999	2000	2001
J. Javier Taberna	12 / 13	0	600.000	600.000

## START UP CAPITAL NAVARRA, S.A.

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK
Nuria Iturriagagoitia	5 / 5	Ordainsaririk gabeko kontseilua
José Javier Armendáriz	4 / 5	"
Enrique Jiménez	4 / 5	"

## TRABAJOS CATASTRALES, S.A. "TRACASA"

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK		
		1999	2000	2001
Calixto Ayesa	6/7	0	603.750	630.000
Francisco Iribarren	7/8	0	0	0
Ignacio J. Martínez Alfaro	6/8	630.000	630.000	630.000
Juan Santafé	5/8	630.000	630.000	630.000
Luis Zarraluqui	1/1	630.000	26.250	NM

## VIVIENDAS DE NAVARRA, S.A. "VINSA"

KIDEAK	BERTARATZEA/BILERAK	ORDAINSARIAK		
		1999	2000	2001
J. Javier Marcotegui	9 / 9	0	630.000	630.000
Luis Zarraluqui	9 / 9	630.000	630.000	630.000

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14,3. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 9an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes



## **Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da “Mikel Larumbe” osasun ikerketarako bekak berraztertu eta, gehienez ere hiru hileko epean, erabaki dezan beka hori nori eman”**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da “Mikel Larumbe” osasun ikerketarako bekak berraztertu eta, gehienez ere hiru hileko epean, erabaki dezan beka hori nori eman”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak, 2002ko uztailaren 2an, galdera egin du Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia, Osoko Bilkurak 2001ko urriaren 25ean hartutakoa, bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da “Mikel Larumbe” osasun ikerketarako bekak berraztertu eta, gehienez ere hiru hileko epean, erabaki dezan beka hori nori eman”. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

2001eko ekitaldian, Osasun Departamentuak ebatzi zuen laguntzen deialdia, “Mikel Larumbe” Bekaren laguntza mota horretara azkenean dirulaguntza jaso duten proiektuak baizik aurkeztu ez baziren ere.

Hauexek izan dira diruz lagundutako proiektuak:

- Anbulatorioetako osasun produktua eta haren kostua neurtzeko sistema aplikatzea.

Ikertzaile nagusia: Julián Pérez Gil.

emandako zenbatekoa: 10.097 euro

eskatutako zenbatekoa: 19.713 euro.

- Sendagilearen eta gaixoaren arteko harremanean sendagileen ekintzaren ezagutza formala, adierazitako teoria eta teoria.

Ikertzaile nagusia: José Ramón Loayssa Lara.

Emandako zenbatekoa: 2.464'15 euro

Eskatutako zenbatekoa: 3.155'31 euro

Bi proiektuei eman zitzaizkien dirulaguntza, Proiektuak Ebaluatzeko Agentzia Nazionalak eginitako balorazioaren arabera “Onargarriak” besterik ez baziren ere, eta ez “bideragarriak”, eta Nafarroako batzorde teknikoak berak ere Agentziarekin bat etorri arren.

Beharrezkoa da esatea, halaber, urtetik urtera nabaria dela osasun kudeaketaren arloan ikerketa proiektuen eskasia gero eta handiagoa, eta estatu osoan gertatzen dela. Horregatik, ez da batere egokia osasun kudeaketaren arloko ikerketarako laguntza lerro berariazkoa izatea eta helburu horretarako aurrekontu kontusail bat egotea, hau da, “Mikel Larumbe” beka, zinez egokia litzateke, ordea, lehentasun handiagoko arlo bati heldzea oinarritzko ikerketarako eta ikerketa aplikaturako laguntzetarako deialdi orokorretan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 26an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Galdera, Tuter eta Lizarrako ospitaleetan unitate onkologikoak abiarazteko proiektua existitzen ote den itauntzen duena**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Tuter eta Lizarrako ospitaleetan unitate onkologikoak abiarazteko proiektua existitzen ote den itauntzen duen galdera egin zuen. Erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko ekainaren 24ko 69. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, 2002ko ekainaren 10ean, galdera egin du Tuter eta Lizarrako ospitaleetan unitate onkologikoak abiarazteko proiektua existitzen ote den jakiteko. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Martxoaren 5ean, Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galdera bati erantzun genion. Foru parlamentariak galdera egin zuen Tuterako Reina Sofia Ospitalean onkologia zerbitzu bat paratzeari buruz. Erantzun hartan hauxe esan genuen:

“Egun, plan onkologikoaren aurreikuspenei jarraikiz, onkologia batzordeak eratzea planteatu da; batzorde horietan Tuteran egun dauden espezialitateetako profesionalen gain, parte hartuko lukete, halaber, Iruñeko Onkologia Zerbitzuko onkologo espezialistek, horretarako aldizka joanez Tuteran.

Planteamendu hori da gomendagarriena gurekin mintzatu diren onkologiako adituen iritziz, bai praktika kliniko eta protokolo terapeutikoengatik, orokorrean harturik, bai gaixo onkologikoentzako tratamenduen kalitate zientifiko-teknikoagatik, horietako askok jarraitu beharko dutelako tratamendua hartzen Iruñean, baina joan-etorrian ibili beharrik gabe Tuteran egin daitezkeen jarduketarako, betiere laguntzaren kalitatea ezertan kalte gabe. Aurreikusirik dagoenez, aurtengo azken hiruhilabetean abiaraziko da.

Zerbitzu horretako gaixoei Tuterako barrutian eman daitezkeen tratamenduak eskainiko zaizkie arestian azaldutako irizpideekin bat, betiere kasu bakoitzaren ezaugarrien arabera, Tuterako Ospitalean bete ahal baldin badira osasun laguntzaren kalitatea kaltetu gabe.

Batzorde tekniko bat eratu da egoera eta alternatibak aztertu eta Tuterako barrutiko onkologia batzordeen antolaketa eta jardunbiderako proposamenak egiteko. Ondoren, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak onartu eta abiaraziko ditu. Era berean, onkologiako espezialistak kontratazeko prozesuari ekin zaio

Erantzun horretatik ondorioztatzen da Nafarroako Ospitaleko Onkologia Zerbitzuko espezialistek oso ongi ezagutzen dutela proposamena eta, noski, jarduteko modua lehen azaldutakoa da, eta beraz irizpideak, protokoloak eta jarduketak Onkologia Zerbitzuan zehazten direnak izanen dira. Protokolo horiek zehazturik daude patologia bakoitzean eta aplikatzen ari dira jadanik.

Ez da beharrezkoa aldaketak egitea ospitaleetan, salbu eta eguneko ospitaleratze unitate baten eginkizunak sortzea kimioterapia zikloak aplikatzeko. Eriak tokian tokiko zerbitzuetan ospitaleraturik daude eta diziplina anitzeko artatzea emanen zaie, eta espezialista bakoitzaren jarduketa profesionala kasuan kasuko prozesu klinikoaren protokoloari egokituko zaio.

Halaber, kanpoko kontsulta bat izanen du gaixoen jarraipena egiteko ambulatorioaren esparruan, ospitaleko beste edozein espezialitateetan bezala.

Proiektu bat dago aipatutako unitateetarako.

Tuterako Reina Sofia Ospitalean esperientzia hori irailean hasiko da. Ondoren, behin emaitzak ebaluatuz, Lizarrako Ospitaleko Unitatea eratzeari ekinen zaio. Unitate horretan sendagile onkologo bat egonen da, eginkizunen aldetik Iruñeko Onkologia Zerbitzuan eta etorkizuneko zentro onkologikoan integraturik eta antolaketa aldetik ospitale horretako Barne Medikuntzako Zerbitzuari atxikia. Era berean, ospitale kanpoko zainketa aringarrietako unitate bat eratuko da onkologiako eriak etxean artatzeko eta barrutiko osasun etxeei laguntza emateko onkologiako erientzako zainketarako eta haien familiaren inguruko gaietarako

Onkologiako Unitatean honako hauek egonen dira, gutxienez:

Onkologiako sendagile 1.

Familiako sendagile 1

Erizain 1.

Aurreikusirik dago, bestalde, koordinazio handiagoa ezartzea Tuterako onkologiako unitatearen eta Nafarroako Ospitaleko Onkologia Zerbitzuaren artean, komunikazio denborak hobetzearen eta beharrezkoa ez den joan-etorririk egin ez dadin, lekualdatzeak erien tratamenduan nahitaezkoak direnak baizik ez daitezela izan. Unitate hori irailean abiaraztea dago aurreikusirik.

Erantzun honi Tuterako Barrutian Onkologiako Unitatea eratzeko proposamena eta haren kostu aurreikuspena erantsi dizkiogu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 23an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

## **Galdera, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak Nafarroako merkataritza arautu zuen Foru Legea garatzeari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak Nafarroako merkataritza arautu zuen Foru Legea garatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak Nafarroan merkataritza arautu zuen Foru Legea garatzeari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen kabineteko buru Jorge Nagore Frauca jaunaren erantzuna.

Lehendabizikoa. Uztailaren 12ko 17/2001 Foru legearen VIII. tituluarekin bat, 2002ko apirilaren 15eko Gobernu Kontseiluan tramitatu eta onetsi zen Txikizkako Merkataritzaren Nafarroako Kon-

teilu Aholku-emailearen osaketa, eraketa eta funtzionamendua arautzen duen Foru Dekretua aintzat hartzeko erabakia, eta Nafarroako Kontseiluari eskatu zitzaion derrigorrezko txostena. Aldeko irizpena jaso ondoren, behin betiko erabakia igorri zen Gobernu Kontseilura eta honek 2002ko uztailaren 22an onetsi zuen. Kontseilu aholku-emaile horrek, uztailaren 12ko Foru Legearen 63.2 artikuluan emandako beste eginkizun batzuen artean, merkataritzaren sektorearekin zerikusia duten foru lege proiektuei eta gainerako xedapen guztiei buruzko txostena emanen du.

Uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen X. tituluar (merkataritza txikiari laguntzeko neurriak, 75-75-77 artikulua) dagokionez, merkataritzaren sektoreari laguntzeko neurriak arautzen dituen foru dekretu baterako proiektua prestatu eta gizarite eta ekonomia eragileei igorri zaie, bere iritzia eman dezaten, eta hemendik gutxira bidaliko zaio Txikizkako Merkataritzaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari, eta egoki diren aldaketak eginik, erabakia taxutuko da Gobernu Kontseilurako.

Era berean, II. kapituluko 18, 19 eta 20. artikuluekin bat, merkataritzaren eskumena duen departamentua lanean ari da foru dekretu proiektu batean, Nafarroako saltoki handien lurralde erdua garatzeko, saltoki handiei buruzko espedienteak ebaluatzeko lan tresna gisa erabili den lurralde eredu indardunetik abiatuak.

Bigarrena. 2001eko uztailaren 17tik, egun hartan hartu baitzuen indarra Nafarroan merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeak, gaur arte honako proiektu hauek aurkeztu dira Nafarroan saltoki handiak ezartzeko:

2002ko martxoaren 5ean aurkeztu eta erregistratu zen Vianan ezarri beharreko etxeko ekipamenduaren saltoki handi bat, Vital Sto.Tomás, S.L.k eskatutakoa, Eurodepot ikurrekin.

2002ko uztailaren 2an aurkeztu eta erregistratu zen Iruñeko "Intendentzia" izeneko orubean saltoki handi baterako espedientea; haren sustatzailea eta operadorea "El Corte Inglés, S.A."

2002ko uztailaren 5ean Erripagainako esparruan, Burlatako udalerrian, ekipamendu pertsonalerako, etxerako aisiarako eta kulturarako saltoki baten espedientea aurkeztu eta erregistratu zuen "Desarrollo comercial urbano de Ripagaina, S.A." sustatzaileak, Leclerc hipermerkatuaren proiektuarekin batera -honen merkataritzako lizentzia berariazkoa 2001eko martxoaren 29ko 41/2001 Foru Aginduaren bidez eman zen.

Hirugarrena. Vianan merkataritzako ekipamendurako saltoki handien espedienteari dagokionez, berriz, tramitatzen ari da eta Konkurrentzia Babesteko Auzitegiaren, kontsumitzaileen elkarteen eta Nafarroako Industria eta Merkataritza Ganberaren aldeko txostenak jaso ondoren Nafarroako Txikizkako Merkataritzarako Kontseilu Aholku-emailean tramitatuko da, uztailaren 12ko 17/2001 Foru

Legearen 23. artikuluan aipatzen diren urratsei jarraikiz.

El Corte Inglés, S.A.ren espedienteari dagokionez, aztertzen ari da, eta beharrezkoa baldin bada dokumentazio osagarria eskatuko da, uztailaren 12ko 17/2001 Foru legearen II. kapituluko 22. eta 28. artikuluekin bat, eta espedientea tramitatuko da uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen 23. artikuluari jarraikiz.

"Desarrollo comercial urbano de Ripagaina, S.A." sustatzaileak Erripagaineko esparrurako aurkeztutako saltoki handi baten espedientea, berriz, aztertzen ari da, eta beharrezkoa baldin bada dokumentazio osagarria eskatuko da, uztailaren 12ko 17/2001 Foru legearen II. kapituluko 22. eta 28. artikuluekin bat, eta espedientea tramitatuko da uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen 23. artikuluari jarraikiz.

Laugarrena. Uztailaren 12ko 17/2001 Foru legearen 3. eta 4. xedapen gehigarriari dagokionez, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren bitartez, Toki Administrazio Departamentuarekin koordinaturik, toki ogasunei buruzko legeriaren arloko xedapen horiek garatuko dituzte.

Iruñean, 2002ko irailaren 9an

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren Kabineteko burua:  
Jorge Nagore Frauca

## **Galdera, Osasun Departamentuaren aurrekontu-betetzearen egoerari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Osasun Departamentuaren aurrekontu-betetzearen egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 4ko 73. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak galdera egin du maiatzaren 31ko aurrekontu-betetzeari buruz, kapituluz kapitulu eta programaz programa. 84/2002 galdera da, 2002ko ekainaren 20koa. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Eskatutako informazioa erantsitako tauletan ageri dena da.

“dg-as-doc 31 mayo” izeneko taulan departamentu honetako Idazkaritza Teknikoak Osasun Zuzendaritza Nagusiarentzat, Osasun Publikoaren Zerbitzuarentzat, Osasun Laguntzaren Zerbitzuarentzat eta Osasunaren Irakaskuntza, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuarentzat kudeaturiko aurrekontu-programei buruzko datuak ageri dira.

“estado ejec todo el dpto. 31 mayo” izeneko taulan Departamentuaren informazio guztia bil-tzen da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 3an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

(Oharra: Aipatu taulak foru parlamentarien eskura dauden Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

---

**I saila:**  
**PARLAMENTUKO JARDUERA**

---

## 2003ko martxoan egindako bilerak

### MAHAIA

12an eta 25ean.

### MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA

3, 10, 17, 24 eta 31n.

### OSOKO BILKURA

6 eta 7an:

– Nafarroako sinboloeri buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Errazti Esnal andreak (EA/EAJ-PNV), Askotariko Taldeko foru parlamentari Barrena, Puyo, Kiroga, Arroyo, Arbizu, Pueyo eta Ortiz jaun-andreak, Rubio Salvatierra andreak (Askotarikoa) eta Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu dituzte.

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizainen lanbide karreraren sistema arautzen duen Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Rubio Salvatierra andreak (Askotarikoa), Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak eta Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu dituzte.

– Nafarroako 2001eko kontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektua irakurketa bakarrean eztabaidatu eta bozkatzea.

– Abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legeko 14.4 artikulua indargabetzen duen Foru Lege proiektua irakurketa bakarrean eta zuzeneko tramitazioan onestea, hala erabakiz gero. (LEY-5/03).

b) Abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legeko 14.4 artikulua indargabetzen duen Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzea.

– Abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari buruz Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga neurri batzuk ezartzen dituen Foru Lege proiektuari buruz Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako landa garapenera buruzko Foru Lege proposamenari buruz Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Erregelamenduko 171 eta 98.2 artikulua aldatzeko proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizainen lanbide karreraren sistema arautzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 10 langile baino gutxiagoko enpresak interneten sartzeko laguntzen kanpaina egin dezan.

– Foru parlamentari Rubio Salvatierra andreak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Burlatan ikastetxe publiko berria eraiki dezan.

– Mugitzeko ezgaitasuna izan eta errehabilitazioa behar duten haurren tratamenduari buruz Arartekoak emandako gomendioari buruzko galdera. Torres Miranda andreak aurkeztu du.

– Ikastetxeetan teknologia berriak, interneten bidezko prestakuntza eta alde bien intereseko prestakuntza jarduerak sustatzeko lankidetzaren hitzarmena, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministe-

rioaren eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren artean sinatzeko eztabaidatu eta bozkatzea.

10ean:

– Gerra Zibilean Nafarroan fusilatutako eta errepresaliatutako pertsonak gogoratzeko, omentzeko eta dagokien ordain morala emateko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzorde Bereziak 2003ko otsailaren 21ean onetsi zuen proposamena berrestea.

13an:

– a) Foru Lege proiektua, 5.100.000 euroko kreditu berezi bat ematen duena toki entitateek eta ureztatzaileen elkarrekin neurritzko kanpoko uholdeen ondorioz kaltetutako titularitate publikoko nekazaritza azpiegiturak konpondu ahal izateko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak laguntza bereziak eman ditzan, zuzenean eta irakurketa bakarrean bidera dadin onestea.

b) Foru Lege proiektua, 5.100.000 euroko kreditu berezi bat ematen duena toki entitateek eta ureztatzaileen elkarrekin neurritzko kanpoko uholdeen ondorioz kaltetutako titularitate publikoko nekazaritza azpiegiturak konpondu ahal izateko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak laguntza bereziak eman ditzan, eztabaidatu eta bozkatzea.

– a) Nafarroako Foru Komunitatean aurtengo otsailean gertaturiko uholdeek kaltetutako aldeko neurriak ezartzen dituen Foru Lege proiektua zuzenean eta irakurketa bakarrean bidera dadin onestea.

b) Nafarroako Foru Komunitatean aurtengo otsailean gertaturiko uholdeek kaltetutako aldeko neurriak ezartzen dituen Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskuntza eta erabilera arautzeko Foru Lege proiektuaren eta Foru Lege proposamenaren gainean Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Familia ugarietako buruzko Foru Lege proposamenari buruz Gizarte Gaietarako Batzordeak eginitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriak buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari buruz Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 1eko 4/1988 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari buruz Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Erregelamenduko 171 eta 98.2 artikulua aldatzeko proposamena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua, aintzat hartzea, hala erabakiz gero.

– Nafarroako Ingurugiro arloko Kontseilua sortu zuen otsailaren 17ko 1/1993 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua, aintzat hartzea, hala erabakiz gero.

– Gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere biziaren gaineko aurretiazko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzeko, arautzen dituen maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamena, Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztua, aintzat hartzea, hala erabakiz gero.

– Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testu bateratua onesten duen urriaren 14ko 213/2002 Legegintzako Foru Dekretuko 35 eta 43. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak aurkeztua, aintzat hartzea, hala erabakiz gero.

20an:

– Jabeldura, Iraken aurka berehala hastekoa den gerra dela-eta Nafarroako Gobernuak duen jarrerari buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Bastán jaunak egina.

26 eta 27an:

– Karguan aritzeagatik euren kideei sariak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalei konpentsazio ekonomikoak emateko sistema bat ezartzeari buruzko Foru Lege proiektuari buruz Toki Administrazioako Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako sinboloetako buruzko Foru Lege proiektuaren gainean Foru Araubide Batzordeak eginitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroan merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari buruz Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizainen lanbide karreraren sistema arautzen duen Foru Lege proposamenari buruz Osasun Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina aldatzeko lege proposamenari buruz Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Txikizkako Merkataritzaren Kontseilu Aholkumelearen osaketa arautzeko Foru Lege proposamena eztabaidatu eta bozkatzea.

– a) Nafarroako Ingurugiro arloko Kontseilua sortu zuen otsailaren 17ko 1/1993 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena zuzenean eta irakurketa bakarrean bidera dadin onestea, egoki iritziz gero.

b) Nafarroako Ingurugiro arloko Kontseilua sortu zuen otsailaren 17ko 1/1993 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena eztabaidatu eta bozkatzea.

– a) Foru lege proposamena, gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere biziaren gaineko aurretiazko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa, arautzen dituen maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legea hein batean aldatzen duena, zuzenean eta irakurketa bakarrean bidera dadin onestea, egoki iritziz gero.

b) Foru lege proposamena, gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere biziaren gaineko aurretiazko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa, arautzen dituen maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legea hein batean aldatzen duena, eztabaidatu eta bozkatzea.

– a) Foru Lege proposamena, Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen urriaren 14ko 213/2002 Legegintzako Foru Dekretuko 35. eta 43. artikulua aldatzekoa, zuzenean eta irakurketa bakarrean bidera dadin onestea, egoki iritziz gero.

b) Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen urriaren 14ko 213/2002 Legegintzako Foru Dekretuko 35. eta 43. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Larrako natur erreserba eta haren babespeko eremu periferikoa berriz mugatzeari buruzko Foru Lege proposamenari buruz Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Iraken aurkako eraso militarren kontra eta konponbide baketsua bilatzearen alde dagoela.

## HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA

4an:

– Bisita Zangozara, Andre Maria elizaren fatxadako egoera bertatik bertara ezagutzeko.

5 eta 6an:

– Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskarazko irakaskuntzak eta euskararen erabilera arautzeko foru lege proiektuari eta proposamenari buruz Ponentziak prestatu duen txostena eztabaidatu eta bozkatzea.

11n:

– Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren agerrialdia, Eledunen Batzarrak eskatuta, Tuteran Unibertsitate Publikoa abian jartzeko eman diren pausoei buruz informa dezan.

11n:

– Lan bilera. Bertan, Lehen Hezkuntzako musika irakasleen kolektiboko ordezkariak beren egoera azalduko dute.

14an:

– Lan bilera. Bertan, Iruñeko Komunikabideak enpresako ordezkariak balorazio bat eginen dute euskara erabiltzeagatik komunikabideei laguntzak emateko prozesuan gertatutakoari buruz.

18an:

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 0 eta 3 urte bitarteko zikloko ikastetxeak erregulatu ditzan.

– Foru parlamentari Fernando Barrera Arza jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da 0 eta 3 urte arteko haur hezkuntzako zikloa gara dezan.



– Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haur hezkuntzako zenbait ikastetxetan neurri batzuk aplikatu ditza.

– Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da euskara erabiltzeagatik komunikabideei ematen zaizkien dirulaguntzen inguruko zenbait neurri har ditzan.

– Foru parlamentari Pernando Barrena Arza jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuaitzen du NUPeko Errektoreak eta Gobernuaren Ordezkariek apirilaren 22tik 26ra bitarteko gertakarietan izan zuten jokabidea.

#### **GIZARTE GAJETAKO BATZORDEA**

4an:

– Lan bilera. Bertan, Elkarkide elkarteak agertuko da, adimen gaixotasunek jotako pertsonentzako lanbide tailerrei buruz dauzkaten proposamenak azal ditzan.

– Lan bilera. Bertan Nafarroako Minusbaliatuen Ordezkarien Komiteko (CORMIN) “2003 Batzordea”, “Europar ezgaitasunak dauzkaten pertsonen urteari” buruz informatu dezan.

12an:

– Lan bilera. Bertan Vida Digna taldea agertuko da, pentsioak igotzeko aukerari buruz eta estatuko legediak alargun pentsioen inguruan ezarritakoari buruz informatzeko.

– Lan bilera. Bertan Alargun pentsioen berdintasunaren aldeko plataforma agertuko da, pentsioak igotzeko aukerari buruz eta estatuko legediak alargun pentsioen inguruan ezarritakoari buruz informatzeko.

19an:

– Lan bilera. Bertan Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakaria agertuko da, tratatu txarrak jasan dituzten adingabeekin lan egiten duten erakunde batzuetako ordezkariak agertuko dira, haien egoera eta funtzionamendua azaltzeko.

– Lan bilera. Bertan Psikologoaren Elkargoko lehendakaria agertuko da, tratatu txarrak jasan dituzten adingabeekin lan egiten duten erakunde batzuetako ordezkariak agertuko dira, haien egoera eta funtzionamendua azaltzeko.

21ean:

– Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen etorkinei hautesleak eta hautatuak izateko eskubidea aitortu diezaie.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adingabeenganako sexu-abusu eta tratatu txarren arloan jarduteko prozeduren protokoloa onartu dezan.

– Foru parlamentari Rubio Salvatierra andreak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adingabeenganako sexu-abusu eta tratatu txarren jarraipenari eta arretari buruzko jarduketaren protokoloa onartu dezan.

#### **FORU ARAUBIDE BATZORDEA**

5ean:

– Arartekoaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, “Adingabeen egindako sexu-abusu edo tratatu txarren kasuak arretari egiteari, haien aurrean jokatzeko prozedurari eta haien jarraipenari buruz Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoari egindako gomendioa” izeneko txostena, erakunde horrek onartu, azaltzeko.

– Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitateko ikur eta sinboloari buruzko informazioa emateko eta haien indartzeko, ezagutzera emateko eta erabiltzeko plan bat onartu dezan.

12 eta 18an:

– Nafarroako sinboloari buruzko Foru Lege proiektua eta hari aurkezteko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

18an:

– Nafarroako Gobernuaren lehendakariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, Ezkaba mendian maniobra militarrek garatzeko Defentsa Ministerioarekin emandako urratsen berri eman dezan.

21ean:

– Nafarroako Gobernuaren lehendakariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, informazioa eman dezan enpresa publikoaren eta Gobernuaren partaidetza dutenen gaineko politikaren gidari diren irizpide eta printzipioei buruz.

– Nafarroako Gobernuko lehendakariaren agerraldia, etorkizunean Madril eta Tuteran lotuko dituen autobidearen inguruko azken berriak eman ditzan.

24an:

– Arartekoaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskaturik, "Nafarroako adimen-osasunaren arloko laguntza" txostenaren edukia azal dezan.

### **NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA MENDI BATZORDEA**

5ean:

– Lan bilera. Bertan Estellerriko alkateak agertuko dira, Nafarroako ubidearen eta hark ureztatu-ko dituen eremuen udalez gaindiko eraginari buruzko proiektu sektoriala aldatzeko eginiko eskariari buruz informa dezaten.

19an:

– Lan bilera. Bertan, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak behi-aziendaren entze-falopatia esponjiformea dela-eta eginiko jarduketan jarraipena azalduko du.

19an:

– Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, Estellerriko alkateek Nafarroako ubidearen eta hark ureztatuko dituen eremuen udalez gaindiko eraginari buruzko proiektu sektoriala aldatzeko eginiko eskariari buruz hitz egin dezan.

– Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Lizarrako merindadean uraren arazoak konpon ditzan eta Ega ibaia erregulatzeko plangintza bat presta dezan.

### **TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEA**

11 eta 12an:

– Karguan aritzeagatik euren kideei sariak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalei konpentsazio ekonomikoak emateko sistema bat ezartzeari buruzko Foru Lege proiektua eta hari aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Antsoaingo udaletxea dela-eta hartutako konpromisoa bete dezan.

### **LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUMEN BATZORDEA**

11n:

